

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Busturialdeko Ur Partzuergoa****Estatutuen aldaketa behin betiko onartzea**

2017ko abenduaren 27ko Busturialdeko Ur Partzuergoaren Kontseilu Nagusiak erabakitakoa betetzen, eta Batzorde horrek erabakitakoa behin betiko onartu delarik, Partzuergo honen Estatutuen testu bateratua argitaratzen da, onartua izan den 1, 3, 12, 29, 33, 36, 38 eta 44. artikuluen aldaketarekin.

Onartutako aldaketak iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

Ebazpen honek administrazio bideari amaiera ematen dio. Beraz, honen aurka helegitea aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzibidean, bi hilabeteko epean, Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8 eta 46 artikuluek artikuluek diotenez.

Nolanahi ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsora jo baino lehen, Ebazpen honen aurkako Aukerabideko Birjarpen Helegitea aurkez daiteke, hilabeteko epean, Ebazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatuta, erabakia eman duen organo berberaren aurrean. Hau, Herri-Administrazioen Lege-araudia eta Administrazio-Prozedura Arruntaren, urriaren 1eko, 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluek diotena beti kontuan harturik.

Sukarrietan, 2018ko apirilaren 17an.—Presidentea, Iñaki Gorroño Etxebarrieta

**BUSTURIALDEKO UR PARTZUERGOAREN ESTATUTUAK
TESTU BATERATUA (2018KO APIRILAK)****ATARIKO XEDAPENAK**

Lehena: Estatutu hauek udalez gaindiko eremuko erakundeak araupetzea buruzko martxoaren 30eko 95/3 Foru-Arauaren lehen xedapen iragankorrean jarritako agindua betetzen dute, eta Busturialdeko Ur Patzuergoak, indarrean dituenak Foru-Arauak jartzen duenari moldatzea eragiten du.

Bigarrena: Estatutu hauek edukina betetzeko definizio hauek ematen dira:

Ur-hornidurak bi zerbitzu hauek biltzen ditu: «ekartze» edo oinarrizko sarerako hornidura eta «banaketa» bigarren mailako sarerako hornidura. Saneamendua, estoldak (bigarren mailako sarerako saneamendua) eta «tartean hartzea/arazketa» (oinarrizko sarerako saneamendua).

- Oinarrizko sarerako Ur- hornikuntza, «alta»rako Hornidura edo Ekarpen Zerbitzua.
Ondorengo funtzioak biltzen ditu: Ura hartu edota aurkitu, bildu, garraiatu, tratatu eta, eramatea banaketa-sareko ur-biltegi nagusi edo azken kontsumo handia duten erabiltzailei.
- Bigarren mailako sarerako Ur- hornikuntza, «baja»rako Hornidura, edo Banaketa Zerbitzua.
Egiteko hauek biltzen ditu: oinarrizko saretik hornitzen den ura biltegietan batu eta azken erabiltzaileen instalazioak lotzen dituzten ur-hartunekin hoditeriaren bidez banatzea (egoitza, denda, industri eta gainerako establezimenduetara).
- Bigarren mailako Sareamendua edo Estoldak
Egiteko hauek betetzen ditu: Etxe, industri edo euri-urak, etxe edo industri-ur hartune, kainozulo eta isurbidetatik jaso eta saneamenduko oinarrizko sarera edota bere berezko ur ingurunera isurtzea.
- Oinarrizko sarerako Saneamendua, edota Tartean Hartu eta Arazketarako Zerbitzua.
Kolektore eta tartekagailu nagusiak, (estoldak eta hondakin –uren araztegiak elkarrekin lotzen dituzte), araztegiak (tratamendurako eta hondakinak iraitzeko instalazioak) eta isurleak (ur-araztua ur-ingurune hartzailera itzultzen dute) biltzen ditu.

1. KAPITULUA**XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua. – Eraketa**

1. Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Gernika-Lumo, Forua, Gautegiz Arteaga, Ibarrangelua, Kortezubi, Mendata, Mundaka, Murueta, Muxika eta Sukarrieta udalerriek, guztiak Bizkaiko Lurralde Historikokoak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzarekin batera, bere borondatez Partzuergoa eratzen dute, Bizkaiko Udalez gaindiko Eremuko Erakundeak araupetzeko martxoaren 30eko 95/3 .Foru-Arauak jarritakoa eta Toki-Jaurbidearen araubidearekin bat etorritik, biztanleriaren ur-hornikuntza eta saneamendua zerbitzuaren kudeaketa osoa edo eskatzen dizkieten beste batzuk egiteratzeko, Estatutu hauetan ezargarri izango zaizkien izaera orokorreko eta betearazteko xedapenei zuzen loturik.

2. Partzuerturiko Erakundeek, Elkartasun Printzipioan oinarritzeko konpromisua hartzen dute bere oinarrizko harremanetan informatzaile bezala.

3. Administrazioeko teknika edo ekonomia arazoak hala eskatzen dutenean, beste udalerrri batzuek eskubide osoko kide legez barne-sartzea baimendu ahal izango da, beti ere hauek eskatzen badute. Hortarako estatutuek jarritako jardunbide eta betekizunak beteko dira, kasu bakoitzarako Batzar Nagusiak jarriko dituen baldintza orokor eta berrizkoen kaltetan gabe.



4. Patzuergoa Erabiltzaileen Erkideko lez eratuko da, indarrean dagoen Uraren legeak oharmandako lege ondorioetarako, Patzuergoak bere garaian egin ditzan Ordenantzak jarriko dutenaren kaltetan jo gabe.

2. artikulua. — Izena eta egoitza

Eratuko den erakundeak Busturialdeko Ur Patzuergoa deituko da eta bere helbidea Sukarrietako Portuondo Bide, 7 z.an izango du, beste herri batzuetan ere bere lanaren ondorioz zabal ditzaketenaren kaltetan jo gabe.

Egoitzaren aldaketa Kontseilu Nagusiak erabaki ahal izango du, Estatutu hauek aldatu behar gabe, eta, horrez gero, Bizkaiko Toki Erakundearen Foru Erregistroari eta partzuergoaren partaideak diren erakundeei jakinaraziko zaie.

3. artikulua. — Lege Nortasuna eta atxikipena

1. Partzuergoak Bizkaiko udalez gaindiko eremuko erakundeak araupetzeari buruzko martxoaren 30eko 95/3 Foru-Araua, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 85/7 Legea, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, Arlo Publikoaren Lege Araubidea arautzen duen, urriaren 1eko, 40/2015 Legea, edo araudia honen ordezkari edo osagarri legeak egiten den legeriarekin bat etorritik, dituen helburu bereziak betetzeko nortasun eta gaitasun juridikoa eta baita egitekoa ere izango du.

2. Legeak aurreikusten dituen eragin orotarako, Busturialdeko Ur Partzuergoak Gernika-Lumoko Udalari atxikitzen zaio.

Atxikipen hau aldatu beharko, estatutu honetan jasotzen den prozeduraren bitartez, Legez dagozkion zentzuan, epeetan eta eratan, atxikipen-udalerrira aldatu behar denean.

4. artikulua. — Administraziozko ahalgoak

Busturialdeko Ur Patzuergoari honako ahalgo administratiboak dagozkie:

- a) Arautzekoa eta autoantolatzekoa.
- b) Zergak eta dirubiltzekoak jartzeko (azken kasu honetan kanpo geratzen dira zerga izaera duten tributuak) ahalgoa.
- c) Programak edo planifikazioa egitekoak.
- d) Legebidezkotasuna duela uste izatekoa eta dagozkion egintzak izatekoa.
- e) Dagozkion egintzak eta erabakiak ofizios berrikusiak izatekoa.
- f) Derrigorrezko desjabetzapena egitekoa.
- g) Beterrazpena derrigortasunez.
- h) Zehapen-ahalgoa.
- i) Dazkan ondasunak ikertu, zedarritu, maisterrak administrazio bidez bota eta ofizios eskuratzekoak.
- j) Dazkan ondasun eta eskubideak bahitu ezinak izatekoa, Toki-Ogasunak kredituak emateko dituen lehenespenak eta lehentasunak eta aitortutako gainontzeko eskubideak, Foru eta Estatuko Ogasunei aitortutakoetan kaltetan jo gabe

5. artikulua. — Patzuergoaren Indarraldia

Partzuergoaren iraupena, bera ziotu duten helburuen izaera iraunkorra dela eta, mugagabea izango da. Hori, jakina honako Estatutuaren ezarritako zioen eta jardunbidearen arabera desegina gertatzearen kaltetan izan gabe.

II. KAPITULUA

PARTZUERGOAREN HELBURUAK ETA ESKUMENAK

6. artikulua. — Helburu Orokorrak

1. Partzuergoak helburu nagusizat du hiri-uraren zikloaren kudeaketa osoa, zerbitzuaren kalitatearen homogeneotasuna eta lurralde-eremu horretan tarifa bateratuak



erabiltzearen oinarrietan sustraiturik, berau osotzen duten lurralde-eremuan Ur Hornikuntza eta Saneamendu zerbitzua ematea.

2. Halaber, Partzuergoak tokiko beste herri-zerbitzu batzuk eman ahal izango ditu, partzuerturiko Erakundeek espreski erabakitzen badute.

3. Bere helburu orokorrak betetzeko eraginkortasuna indartuko duten jarduera osagarriak edo hauetatik sortzen direnak egin ahal izango ditu.

7. artikulua. — Helburuak betetzeko garapenbideak

1. Partzuergoak berak beteko ditu partzuerturiko udalerrri guztietan oinarritzko sarean hornikuntza eta sareamendu zerbitzuak eta bigarren mailako sarerako abonatuak kudeaketa.

2. Aipatutako zerbitzuen Partzuergoak kudeatuz gero, beronetik ateratzen diren diru-sarrerak Partzuergoak berak jaso eta, emate horrek dakartzan antolatzeke ahalgoak bereganatzea eragingo du.

8. artikulua. — Eskumenak

1. Bere helburuak betetzeko ondorengo berarizkoeskumenak egikarituak ditu, ur-hornikuntza eta saneamendu zerbitzuei dagozkienak:

- 1) Partzuerturiko udalak ur-hornikuntza eta saneamendu arloan dituzten behar-izanak aztertu eta horiek betetzeko egokitzat jotzen diren planak eta proiektuak egitea.
- 2) Ur-hornikuntza eta saneamendu arloko emakida eta hondakin-uren isurketen beharrezko baimenatarako eskaerak.
- 3) Ur-hornikuntza eta saneamendurako obrak eta instalazioak egitea eta baita horien artepen eta ustiapena.
- 4) Ur-hornikuntza eta saneamendu zerbitzuak bere lurralde-eremuan araupetzea, horien zerbitzu ematea berganatzten duen neurrian.
- 5) Ur-hornikuntza eta Saneamendu sareetako tarifak jarri eta finkatzea. Tarifok Partzuergoak hartzen duen lurralde-eremu guztian berak izango dira.
- 6) Saneamendurako oinarritzko sare zein estolda saretik egin daitezten industri hondakin-uren isurketen baimena eman, jarraipena, kontrola eta artapena egitea eta baita egin daitezten urraketak zehatzeko ahalgoa, baita gehiegikerizko isurketei bukaera eman edota dagokion ur-hornikuntza kontratuari deuzestetasun adierazpena egitea.
- 7) Saneamendu eta Ur-hornikuntza zerbitzuan partzuerturiko udalerrri guztien abonatuak kudeaketa hau da, neurtzeko ekipoen Kontrola, zerbitzuen fakturazioa eta diru-bilketaren kudeaketa, erreklamazioetatik erabakiak eman, jarduera honegatik izan daitezken zigorrak jartzeko ahalgoa.
- 8) Ur-hornikuntzaren agintza zehatzetan laguntza-zerbitzuak, horrela eskatuta eta Kontseilu Nagusiak jarritako baldintzetan partzuertugabeko Udalerrien saneamendua.
- 9) Ur-hornikuntza edo saneamendu arloan Herri edo Erakunde Pribatuek eskatuta, Zuzendaritza-Batzordeak jarriko dituen baldintzetan, aholkularitza eta laguntza zerbitzuak eman, instalazioak egin burutu eta ustiapena, baita eta txostenak egitea, edo antzeko izaerako lanak.
- 10) Beste Administrazio batzuekin batera uren kudeaketa osoaren arloko zerbitzuak koordinatu eta hitzarmenak egitea, jardunbide egoki eta ohizkoa izan dezan.
- 11) Uraren kudeaketa osoaren arloan legez aitortzen zaizkion eskumen edo eratzikipenak.
- 12) Beste Administrazio batzuk eskualdatu edo eskuordetzen dizkieten eskumenak, onespene-erabakia hartu ondoren.



13) Partzuergoaren eskumenekoak izango dira baita, beste udal-zerbitzu batzuk ematea patzuerituriko erakundeek espreski horrela erabakitzen badute.

2. Bere helburuak betetzeko Patzuergoak Toki-Jaurbideaz indarreango araudiak aitortzen dizkion ahalgoak erabili ahal izango ditu, batez ere 3/95 Foru-Arauak jartzen dituenak eta baita, alorkako xedapenetan ere, Uraren Legearenak, esaterako, eta orokorrean zerbitzua emateko behar diren udal-ahalgoak.

9. artikulua. — Udal-Baimenak

Partzuergoak bere helburuak betetzean lur eta lurpeko erabilera egintzak zein erai-kinak eta instalazioak egitea, Toki-Udalbatzek egiten dituzten izaera eta maila berekoak izango dira. Beraz ez dute beharrezkoa izango udal-baimena lortzea ezta ordainerazpenik ordaindu beharko ere.

Edozein modutan ere, Partzuergoak Udaleei behar den denboraz azalduko die Udalerrietan egin asmo dituen lan eta jarduerak.

10. artikulua. — Kudeaketa-Erak

Agindutako zerbitzuak emateko eta kudeatzeko lege ezarrita dauden zerbitzu toki-publikoen edozein kudeaketa era erabili ahal izango du.

III. KAPITULUA

PARTZUERGOAREN ARTEZKARITZA-ORGANUAK

11. artikulua. — Gobernu-organoak

Partzuergoa ondorengo Organuek ordezkatu eta administratzen dute:

- A) Gobernu-Organuak:
 - a) Kontseilu-Nagusia.
 - b) Kudeaketa-Batzordea.
 - c) Partzuergoaren Lehendakaria.
 - d) Partzuergoaren Lehendakariordea.
 - e) Kudeatzaile-Zuzendaria.
- B) Organu-Osagarriak:
 - a) Kontuen Batzorde Berezia.
 - b) Kontratazio-Mahaia.

12. artikulua. — Kontseilu Nagusia

1. Kontseilu Nagusia Partzuergoaren organu gorena da, berau ordezkaten duena eta Tokiko Herri-Erakunde izaera hartzen duena.

2. Kontseilu Nagusian, Partzuergoa osatzen duten Udalerriak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza egongo dira ordezkatura.

3. Kontseilu Nagusia ondoko kontseilari hauetaz osatuta dago:

- Eusko Jaurlaritzako Ordezkar bat.
- Foru Aldundiko Ordezkar bat.
- 5.000 biztanletik beherako zuzenbidezko biztanlegoko partzuerituriko udalerrri bakoitzeko ordezkar bat
- 5.000 eta 12.000 zuzenbidezko biztanlegoko biztanle bitarteko partzuerituriko udalerrri bakoitzeko ordezkar bi.
- 12.000 biztanletik gorako zuzenbidezko biztanlegoko partzuerituriko udalerrri bakoitzeko, hiru ordezkar.

4. Baita ere, Kontseilu Nagusiko kidea izango da Kudeatzaile- Zuzendaria, hitz egiteko eskubideaz baina ez boturik ematekoaz.



5. Halaber, Idazkari funtzioak beteko ditu Lehendakaritza kargua daukanak izendatzen duenak. Kargua Patzuergoaren kidea den edozein udalerriren Idazkaria denak edo behar besteko gaitasuna duen Partzuergoko langile batek bete ahal izango du, kasu bietan boto eskubiderik gabe.

6. Kontseilura, Lehendakariak egokietsitzen dituen aholkulariak joan ahal izango dira.

7. Paratzuerturiko udalek euren ordezkariak udalkideen artetik izendatuko dituzte. Partzuergoan ordezkari izango direnak Udalbatzetan beteko duten agintaldi bera izango dute.

8. Ordezkatuak dauden erakundeak, aurreko idaztatietan jarritakoa kontutan harturik bere ordezkarien izendapenei uko eman eta hauek ordeztuko dituztenak aukeratu eta, baita ordezkariak edozein arrazoigatik hutsik dagoenean ere izendatu ahal izango dute. Kasu hauetan ordezkariaren arituberriaren agintaldia lehen-hautatu izan denari gertatuko zaion epealdirako izango da.

9. Zinegotzi-kargua galduz gero, ordezkariak utzi beharra ekarriko du, Udalbatzak berriztatzen diren kasuetan izan ezik. Honelakoetan Partzuergoan bere jardunean jarraituko dute, agizko administrazio gaietarako bakarrik, ondorengoek karguaz jabetu arte. Gehiengo kualifikatua legez eskatzen diren kasuetan ezin izango dute erabakirik hartu.

10. Partzuergo udalerririk sartuz gero, Estatutu hauetan eta Toki-Jaurbidearen arauterian jarritako izapideak bete ondoren Batzar-Nagusia osaketa aldatu egingo da. Ordezkaritza artikulu honetako 3. idaztatian jarritako proportzionaltasun-irizpidei lotuko zaizkio. Batzar-Nagusia osaketa ere aldatu egingo da udalerririk bateko biztanleri kopurua aldatu eta jarri den gora edo beheragoko maila baten sartzea eskatzen duenean.

11. Partzuergoko kide bat legez ezarrita dauden izapideak bete ondoren banatzen denean, berez Partzuergoko Batzar-Nagusia eta gainontzeko Organuetatik kanpo geldituko da.

12. Kontseilu-Nagusiko kide guztiek hitz egin eta botoa emateko eskubidea izango dute egingo diren bilkuretan. Hala ere, Partzuergoaren kidea den Erakunde batek Partzuergoaren jardueretarako finantziarioari buruzko betebeharrak nabarmenki beteko ez balitu, bere ordezkariak edo ordezkariak ez luke boto eskubiderik izango.

Ez betetzea Estatutuen arabera aurreko ekitaldia ixterakoan Partzuergoaren kidea den erakundeari dagozkion diru-kopuruak ez ordaintzean datza, boto eskubidea kenduko zaiolarik aurreko ekitaldietatik ordaintzeke dauden diru-kopuruak ordaindu arte.

13. artikulua. — Kontseilu-Nagusiko Jardunbide -Jaurbidea

1. Kontseilu-Nagusia sei hilabeteko batzartu beharko da, ohiko bilkuretan eta Lehendakariak espreski deialdia egiten duenean ofizialki edo gutxienez aholkularien laugarren partearen eskariz.

2. Kontseilu-Nagusiko deialdiak, lehendakariari dagozkio eta lau egun lehenago jakinarazi beharko ditu, bilkuraren eguneko aztergaiekin batera. Eguneko aztergaietan espreski agertzen ez diren erabakiak ezin izango dira hartu, kideen legezko kopuruaren gehiengoaren erabakiz, Kontseilu-Nagusia aurre akordioz oniritzitako premiazko kasuak ez ezik.

3. Kontseilu-Nagusia eraketa lehen deialdian baliozkoa izateko, botoa emateko eskubidea duten batzarkideen legezko kopuruaren herenak bertaratu behar du. Gutxieneko kopuru horrek bilkura osoan zehar iraun beharko du. Kopuru hori ez bada bilkuraren deialdia berez egun bi beranduago eta ordu bererako egingo da. Orduan beharrezko quoruma izango ez balitz Lehendakariak deialdia bertan bera utziko du.

Nolanahi ere, Lehendakaria edota legez ordezkatzeko dituztenek bertan egon beharko dute.

4. Partzuergoko Organuen erabakiak, bertan dauden kideen gehiengo soilez hartuko dira, besterik agintzen ez den bitartean. Bozketan berdinketa gertatuz gero beste bozketak bat egingo da, eta berriro berdinketak jarraituz gero Lehendakariaren botoak ebartziko du.



5. Partzuergoko Organuen bilkuretako batzarretako Agiria jaso egingo da. Deialdiaren zer-nolakoak, bertaratutako ordezkariak, eztabaideen laburpena eta hartu diren erabakiak bildu beharko dira. Agirioi Lehendakariaren Oniritziak, edo hala badagokio Lehendakariordearenaz Organuaren idazkariak baiezkoa emango die.

14. artikulua.— Batzorde beterezlea

1. Partzuergoaren organo iraunkor legez, Batzorde Beterazleak ihardungo du.
2. Ondorengo partaideek osatuko dute:
 - a) Lehendakaria: Kargu hau Batzar Nagusiko Lehendakariak osatuko du.
 - b) Partzuergoaren Lehendakariordea.
 - c) Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari bat.
 - d) Eusko Jaurlaritzako ordezkari bat.
 - e) 12.000 biztanletik gorako dutenen udal bakoitzeko ordezkari bat, eta bi kontseilukide gehiago, Urdaibaiko Itsasadarreko alde bietatik bana. Batzorde Beterazleko azken bi kide hauen izendapena Kontseilu Nagusiaren akordioaren bidez egingo da, doakion Udal multzokoen artetik eta beraiek proposatuta. Hautagai zerrenda ezberdinak bakarrik izan beharko dira.
 - f) Zuzendari Kudeatzailea, kasua balitz, hizpidez baina hautespiderik gabe azalduko da bileretara.
 - g) Idazkari legez Kontseilu Nagusikoak ihardungo du, beronek ere hizpidea bai, baina hautespiderik izango ez duelarik.

15. artikulua.— Batzorde Beterazlearen funtzionamendu-erregimena

1. Batzorde Beterazlea Kontseilu Nagusiaren funtzionamendu arau berberetzuzenduko da, eta bere akordioak Kontseilu Nagusirako ezarritako arauen arabera hartuko dira.
2. Batzorde Beterazleak bilkura erregimena finkatuko du, berau gutxienez hilabeteko bilera batekoa izan beharko delarik.
3. Toki Erregimeneko legeriatik doazkion arauak Estatutu hauek aurreikusten dutenetan aplikatuko dira.

16. artikulua.— Batzar Nagusiko Lehendakaritza

1. Batzar-Nagusiaren eratze-bilkuran berau osatzen duten udalkideen artetik legezko kopuruaren gehiengo osoaz hautatuko du Batzar-Nagusiak Partzuergoko Lehendakaria.
2. Inork ez balu quorum nahikorik lortuko, bozketa egingo litzateke berriro. Bozketa gehien biltzen dituen Lehendakari hautatu egingo da. Berdinketak, partzuerturiko udalerrietan guztira boto gehien jaso dituen alderdiaren ordezkariaren alde izango dira. Biak alderdi berekoak balira, adinez gazteenaren alde izango da.
3. Lehendakariaren kargutik kentzeak, indarrean dagoen legeriaren, Alkatearen kargu kentzearen prozedura bardina jarraituko du, Kargutik kentzeak Batzar Nagusiko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaz akordatuko da.

17. artikulua.— Partzuergoko Lehendakariordea

1. Batzar-Nagusiaren eratze-bilkuran berau osotzen duten udalkideen artetik legezko kopuruaren gehiengo osoaz hautatuko du Batzar-Nagusiak Partzuergoko Lehendakariordea. Inork ez balu aterako beharrezko kopurua Lehendakaria hautatzeko jardunbide bera erabiliko da.
2. Lehendakaria eta Lehendakariordea ezin izango dira udalerrri bereko ordezkari-tzakoak izan.
3. Lehendakariordeak ordezkatzeko du Lehendakaria hutsune-, kanpoaldi, edo gaitotasun kasuetan.



4. Lehendakariordea kargutik kentzea, Batzarreko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaz erabaki beharko da.

18. artikulua.— Kudeatzailea

Kudeatzailea, administrazioaren Direkzio eta Partzuergoaren ekintza teknikoak betetzen duen norbanako organua da, Partzuergoaren batzar nagusia, Batzar betetzailea, Lehendakaria eta Lehendakariordearen menpe dago, berari delegatutako fakultateen funtzioen arabera, Estatutu hauen 24. Artikuluan adierazten den bezala.

19. artikulua.— Kontuen batzorde berezia

Kontuen Batzorde Berezia eratzea aginduzkoa izango da. Apirilak 2ko 7/85 Legearen 116 artikulua jarritako moduan eratuko da. Partzuergoko Lehendakariak edo berak eskuordetzan eman dezakeena izango da horren buru.

20. artikulua.— Kontratazio mahaia

Kontratazio-Mahaia eratzea ere aginduzkoa izango da. Partzuergoko Lehendakariak proposatuta, Lehendakariak edo beronek eskuordetzen duena, buru dela eta Batzar Nagusiak hautatuko dituen bost kidez osatuko da.

Bi organu osagarri hauen idazkariaren izendapena Lehendakariak egingo du.

V. KAPITULUA.

EGINKIZUNEN ESKUMENA**21. artikulua.— Batzar Nagusiko eratzikopenak**

1. Batzar Nagusiko eratzikopenak ondorengo hauek dira:
 - 1) Lehendakaria eta Lehendakariordea, eta Kontuen Batzorde Bereziako eta Kontratazio-Mahaiko kideak hautatzea.
 - 2) Zerbitzua kudeatzeko eraren hautapena edo aldarazpena.
 - 3) Zuzendari Eraentzailearen izendapena, eskurantzak eta ordainsariak, beronen izendapena erabakiko balitz, baita bere utzeraztea ere.
 - 4) Honako Estatutu hauen aldarazpena, bertako 42. artikuluan azaltzen den bezala.
 - 5) Partzuergoaren ihardute Plan eta Egitamuen onespen, aldarazpen edo berrikusketa.
 - 6) Partzuertutako izakundeei dagozkien kuotak, onetsitako egitamuen burutzapenerako ekarpenei eta finantzaketari dagokienez, finkatzea, beren ordainketarako arauak adieraziz.
 - 7) Ordainerazpenen agintarauen onespina, kreditu eragiketak, kontuen azterlari-tza, kredituen aintzatespena, kitatze, itzarote eta edonolako konpromezu ekonomikoen emakida, toki antolamendu juridikoaren arabera.
 - 8) Finantza planaren burutzapenerako egitarauen mugarriketa, hala nola Partzuergoaren ihardute planen onespina ere.
 - 9) Berak, kudeatzen dituen zerbitzuen tarifen mugarriketa.
 - 10) Partzuergo eta bere ondoreen desegitea, estatutuen 43. eta 44. artikuluetan azaltzen den bezala.
 - 11) Partzuergoaren edozein ondasun eta eskubide tituluz baliatzeari doazkion espedienteen ebazpena, beraien zenbatekoa Partzuergoaren Aurrekontuaren %10etik gorakoa denean, edo, kopuru horretara heldu: gabe, lagapenaren iraupena, kasua balitz, bost urtetik gorakoa denean, beti, ere toki antolamendu juridikoan ezarritakoarekin bat etorriaz.
 - 12) Probetxamenduen emakida edo baimentzea.
 - 13) Agintarau orokorrak eta Barne Erregimenerako eta Funtzionarientzako Araudiak onestea.



- 14) Pertsonalgoko plantilen eta ordainketen onespena, indarreko xedapenen arabera.
 - 15) Partzuergoko funtzionariak eta lan kontratatuak kargu edo zerbitzutik kentzea.
2. Honako 21.artikuluko 2, 4,6 eta 7. ataletan seinalatzen diren gaiei dagozkien akordioek, aurrekontuaren onarpena kenduta, Kontseilu Nagusiko kideen legezko kopuruaren gehiengo absolutuaren onespena izan beharko dute.

22. artikulua.— Batzorde beterazlearen eskumenekoak

Batzorde Beterazlearen eskumenekoak honako hauek dira:

1. Garapen egitasmo eta iharduketa egitasmoen gertuketaren zuzendaritza.
2. Kontseilu Nagusiak bere eskumenekoak diren gaitan ematen dituen abiabideen garapena.
3. Kontseilu Nagusiaren eskumeneko gaitan, eta beronek eskatuta, loteraztekoa ez den alde zuzentzeko txostena egitea.
4. Barne Erregimeneko agintza orokorren gertuketa.
5. Kudeaketa ekonomikoaren garapena, onetsitako aurrekontu eta egiteratze oinarrien arabera.
6. Partzuergoaren edozein ondasun eta eskubide tituluz baliatzeari doazkion espedienteen ebazpena, beraien zenbatekoa Partzuergoaren Aurrekontuaren %10etik gorakoa ez denean, eta lapenaren iraupena, kasua balitz, bost urtetik gorakoa ez denean, toki antolamendu juridikoan ezarritakoarekin bat etorriaz.
7. Obrak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzea eta emakida.
8. Funtzionario eta lan legialazioaren menpeko enplegatuen izendapena eta jubilazioa, Kontseilu Nagusiak onetsitako plantilen eta ezarritako arauen arabera.
9. Funtzionarioen aurkako espedienteak hasi eta beraien alde zuzentzeko etendura.
10. Funtzionarioen zentzaketa, salbu eta kargu edo zerbitzutik kentzea, berau Kontseilun Nagusiaren eskumena bait da.
11. Lehendakariordeak edo Zuzendari Eraentzaileak proposatu ondoren, kasua balitz, Partzuergoaren Zerbitzu administratibo eta teknikoaren egitura eta funtzioen aldazpenak onestea.
12. Presazko kasuetan, Lehendakari Beterazlearen ahalme menpeko gaitan, Partzuergoaren demandatua den auzigaitan ekintzen eta defentsaren iharduketarako, eta arazo zibil, kriminal, laboral eta administratiboetan, edo administrazio liskarrazietan, era guztietako ekintzak erabiltzeko ebazpenak hartzea.
13. Partzuergoari, bere kasuan, lagatzen zaizkion eskumenen erabilera.
14. Partzuergoaren personalgoko plantilen hornidurari buruzko gaitan, Kontseilu Nagusiaren akordioaren garapen eta beterazpena.
15. Partzuergoaren beste organuetan egiteratzeko berariz utzita ez dituzten eskumenak.

23. artikulua.— Partzuergoko Lehendakariari dagozkion eskumenak

Lehendakariak ondorengo eratzikipek izango ditu:

1. Partzuergoaren ordezkariak
2. Kontseilu Nagusiaren eta batzorde beterazlearen bilkuretan mahaiburu ihardutea eta euren akordioak beteraztea.
3. Kontseilu Nagusiaren bilkuretarako deia egitea, eguneko gai zerrenda finkatzea, bilkurak hasi, eten eta amaitutzat ematea, mahaiburu ihardutea eta eztabaidak zuzentzea.
4. Partzuergoaren helburuen garapena jagozea
5. Partzuergoaren demandatua den auzigaitan aurkezteko eta aurka egiteko, eta negozio zibil, kriminal, laboral eta administratiboetan eta administrazio liskarrazietan



epai eta epaibidez kanpoko edonolako ekintzei ekiteko ebazpenak hartzea, guzti hau presazko kasuetan eta atzerapenak Partzuergoaren kaltetan jo lezakeenean, Batzorde Beterazleari bere lehenengo bileran guztiaren berri emanez.

6. Aholkulariak izendatzea zerbitzuen alogeraren formularen arabera.

7. Partzuergoaren obra eta zerbitzuen burutzapen egokia jagotea.

8. Auzitegi eta administrazio organoen aurrean, Jabetza Erregistro eta Notarien aurrean, eta hirugarrenen aurka Partzuergoa ordezkatzeko, beti ere baliatzeko egintzetarako, bakoitzari doazkion eskemenen arabera, Partzuergoko Kontseilu Nagusi edo Batzorde Beterazlearen behar bezalako akordioa agertzen denean. Halaber, Lehendakari Beterazleak administrazio soilari dagozkion egintzetan ordezkatzeko du Partzuergoa.

24. artikulua. — Lehendakariordeari dagozkion eskumenak

Lehendakariordeak ordezkatzeko Lehendakaria, hutsune kanpoaldi eta gaixotasun kasuetan.

Lehendakariak ordezkotza eman diezaioteko Lehendakariordeari bere ihardunaren betetzea, Batzar-Nagusi eta Zuzendaritza Batzordeko bilkuretarako deialdiak egin eta mahai buru izan eta estatutu hauetako 23 artikuluko 5 eta 6. idazaztietan jarritakoak izan ezik.

25. artikulua. — Kudeatzaileari dagozkion eskumenak

Kudeatzailearen eskumenak ondorengo hauek izango dira:

1. Partzuergoko Zerbitzuak zuzentzea, bertako buru dela.

2. Zuzendaritza-Batzordeari eta Lehendakariari Partzuergoaren jarduna eta bere helburuak betetzeko ongi deritzon neurriak proposatzea.

3. Partzuergoaren organuek emango dituzten akordio eta erabakiak bete eta, hauek ordezkotza berariz ematen dietenean jarduna bereganatzea.

4. Partzuergoko batzorde Beterazlearen aktibitatea sakatzea eta zuzentzea, Kontseilu Nagusiak emandako erizpideekin bat etorritz.

5. Obretarako egitamuen gertuketa zuzentzea eta koordinatzea.

6. Partzuergoaren dependenzien funtzionamenduaren ikuskapena eta garapena.

7. Partzuergoaren Aurrekontuaren aurreproiektua eta Batzorde Beterazlearen ekitaldi bakoitzeko Memoria, Balantzea eta urteko likidazio kontua Batzorde Beterazlearen onespenean jartzea, beronek aztertu eta Kontseilu Nagusira igon dezan.

8. Ordainketa egokiak agintzea, aurrekontuaren beterazpenerako oinarrien arabera.

9. Kontseilu Nagusiari eta Batzorde Beterazleari aldizka Partzuergoaren garapen eta funtzionamenduaren berri ematea, neurri egokiak proposatuz.

10. Espreski gomendatzen zaizkionak.

26. artikulua. — Administrazio zerbitzuak

1. Lehendakariorde berehalako urgazpenerako legez, kasuan kasu, Lehendakariordeari edo Eraentzari erantsitako Idazkaritza egon ahal izango da,

kasuan kasu, beronen izendapena Batzorde Beterazlearen eskumenekoa izango delarik.

2. Partzuergoaren aztertze, plangintza, administrazio eta kudeatze lanak, dagozkien Zerbitzuek burutuko dituzte. Hauek izaera tekniko eta administratiboko bi unitate nagusitan sailkatuko dira.

3. Erantsitako Idazkariaren funtzioen mugarriketa, Partzuergoko Zerbitzuen, osarea eta eskuratzen edozein aldarazpen Batzorde Beterazleak hitzartuak izan beharko dira, Lehendakari edo kudeatzailearen ekimen edo proposamenez, beti ere dagozkien eskumenen eremuaren barruan.

**27. artikulua.— Batzordeak**

1. Kontseilu Nagusiak, bere eskumenekoak izanik, haien garrantziagatik aldez aurretiko azterketa eskatzen duten arazoetarako Batzorde bereziak eratzeko akordioa hartu ahal izango du.

2. Batzorde bereziak batzorkide kopuru aldagarriak osaturik egongo dira, bost baino gehiago ezin izango direlarik. Ponentzia hauek ez dute beren gain hartuko, inola ere, erabaki edo egiteratzeko ahalmenik.

28. artikulua.— Ordainak

Partzuergoaren Aurrekontuak, aplika dakiokkeen legeriarekin bat etorritik, Kontseilu Nagusi eta Batzorde Beterazlearen bileretara azaltzearen ziozko sari eta ordainak finantatuko ditu.

V. KAPITULUA

EKONOMI - JARDUNBIDEA**29. artikulua.— Aplikagarria den araudia eta araubidea**

1. Partzuergoko Ogasuna Toki Ogasuna araupetzen duen, abenduaren 16ko, 9/2005 Foru Araua, arau honen ordeztu eta honen garapen legezt egiten diren arauak mugaturik, Estatutu hauetan eta Legeen arabera ezarritako baliabideez eratuko da.

2. Zein administrazio publikori dagoen atxikirik, hari dagokion aurrekontu, kontabilitate eta kontrol-araubidearen mende egongo da Partzuergoak, hargatik eragotzi gabe, Bizkaiko Toki Erakundearen Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko, ekainaren 12ko, 5/2013 Foru Arauan, edo honen ordeztu egiten den arauan, aurreikusitakoari loturik.

3. Estatutu honetan jasotzen denari kalte egin barik, Partzuergoari adskribatuta dagoen administrazio publikoari dagozkion ondare-arauak aplikatuko zaizkio.

30. artikulua.— Ekonomi - baliabideak

Partzuergoko Ogasunak jarraiko baliabideak izango ditu:

1. Ondarearen errenta eta ekoizkinak.
2. Estatuko, Autonomi Erkidego eta Lurralde Historikotik edo bestelako edozein Herri-Erakunde zein Pribatutik jaso dezakeen dirulaguntza, laguntza, legatu eta dohaintzak.
3. Ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuaren ustiapenen etekinak, edozein motatakoak.
2. Kontagailu eta neurtzeko gainontzeko tresnen alokairu eta artapen-kuoten etekina.
3. Partzuergoak egin obra, instalazio, edo zerbitzuak finantziatzeko indarreango arauteriak araupetzen dituen kontribuzio bereziak.
4. Partzuergoko eskumenen eremuetako isun eta zehapenen ekoizkinak.
5. Kontseilu Nagusiak erabaki ditzan kreditu-eragiketa eta antzerako ekoizkinak.
6. Estatuak, Autonomi-Erkidego edo beste edozein Herri edo Erakunde Pribatuk, Partzuergoak bere eskumeneko arloan agindutako zerbitzuak edo kudeaketagaitik izandako ekonomi-ekarpenak.
7. Partzuergoaren barne-sartutako Erakundearen ekarpenak. Partzuerturiko erakundeek Partzuergoko Ogasunera zenbatekorik ekartea erabakitzeotan, betebeharrak duten ekonomi-ekarpenak egiteko dagozkion neurriak hartu behar izango dute. Dena den, partzuerturiko Entitatean aurrekontuak atzera botatzeko eskumena edukiko du Partzuergoak, bertan ezarrita ez balego horretarako zenbatekorik.

Ekarpenak asmatzeko irizpidea udalerrri bakoitzaren biztanleria izango da.

8. Bere alde ezar daitezkeen hitzartu edo hitzartu gabeko zergetan parte hartzeak.
9. Zerbitzu eta hustiapenen etekinak, eta legezt lortu daitezkeen beste edozein sarrera.

**31. artikulua.— Ekarpenen ordainketa**

1. Partzuergoan barne sartutako Erakundeek ekonomi-ekarpenak Kontseilu Orokorrak ezarritako eran eta epeetan egingo dira. Ekarpenok derrigorrezko eta lehentasunezko ordainketatzat joko dira ondorio guztietarako.

2. Udalerrietako baten bat bere betebeharreko ordainketan atzeratuko balitz, Bizkaiko udalez gaindiko eremuko erakundeak araupetzeko martiaren 30ko 3795 Foru Arauko 19. artikulua 2. idazatian jarritako eran ekingo zaio.

3. Partzuergoko aurrekontua partzuerturiko erakundeena baino geroago onartzen baldin bada, eta hauek izendaturiko ekarpenak baino haundiagoak aurreikusten baldin baditu gaindikina hurrengo urtealdian ordainduko da.

32. artikulua.— Kreditu- Bermeak

Kreditu-eragiketa bat egiteratzean, berme-osogarri moduan eskatuko balitz Partzuergoan barne-sartzen diren udalen abala, hauek euren Aurrekontuaren zenbatekoaren heinean eman beharko dute.

33. artikulua.— Aurrekontuaren onarpena

1. Aurrekontua eta betearazteko oinarriak Batzar-Nagusiak onetsiko ditu urtero, Halakoetan, Toki-Araubideari buruzko legeriak ezartzen dituen epeetan eta baldintzetan.

2. Partzuergoaren Aurrekontua atxikirik dagoen administrazio publikoaren aurrekontuaren parte izango da, eta administrazio horren kontu orokorrean sartuko da.

34. artikulua.— Udalekin kitapenak

Hiruhilabetero Partzuergoak eta Udalek oinarritzko sareko hornikuntza zein bigarren mailako sareko fakturaketa eta Partzuergoari agindu zaizkion udal-tarifen kudeaketari buruzko kitapenak egingo dituzte.

35. artikulua.— Aurrekontuaren kitapena

Urtealdi bakoitzeko emaitzek ustez izan ditzaketen saldo positiboak, hurrengo urtealdietako gastuak finantziatzeko izango dira soilik. Horien aurrekontuetan sartuko dira soilik kredituen aldaketak egin ondoren.

36. artikulua.— Kontuak ematea

1. Kontu-Orokorra kontu emateaz Toki-erakundeak araupetzen duten arauak jarzen dutenari lotuko zaio, Estatutu hauetan jarritako berezitasunen kaltetan izan gabe. Kontseilu Nagusiari dagokio kontu-ematea onestea.

2. Halaber, Partzuergoa atxiki zaion administrazioaren kontrol-organoak, ekitaldi bakoitzaren ostean, urteko kontuen auditoretza egingo du.

37. artikulua.— Tarifen Araubidea

1. Partzuergoak ezarri eta finkatuko du kudeatuko dituen zerbitzuen zenbatekoa.

2. Tarifen egitura eta maila bateratasun, lurralde, berdintasun eta nahikotasun irizpideetan oinarrituko da.

3. Tarifek instalakuntzako inbertsioak, ustiapenetik, amortizaziotik eta, horiek berriztatzearen ondorioz sorturako gastuak sartu beharko dituzte.

Honela onartutako tarifek, udal sareen lehen ezarpenerako gastuak finantziatzeko erabilitako bideekin elkar bizi ahal izango dira.

4. Kontseilu Nagusiak bere garaian, erabaki ahal izango du uraren hordinura eta saneamendu zerbitzuagatik tarifa bateratua jartzea.



VI. KAPITULUA

LANGILEEN JAURBIDEA**38. artikulua. — *Lege-Araubidea***

1. Partzuergoaren zerbitzuan dauden langileak karrera-funtzioari eta lan itunpeko kontratuzkoa izango dira, eta honen kideak diren Administrazioetan jatorria eduki ahal izango dute, jarraian jasotzen diren salbuespenekin.

2. Partzuergoak, Estatutu hauen arabera Partzuergoaren Gobernu organoaren izaera duten karguetan izan ezik, langileen kontratazioa bakarrik onartu ahal izango du, Partzuergoaren kideak diren Administrazioetatik langileak har ez daitezkeenean, bete behar diren eginbeharrak bereziak izateagatik.

3. Kontseilu Nagusiak, Batzorde Betearazleak proposaturik, Estatutu hauen arabera Partzuergoaren Gobernu organoaren izaera duten karguak ez diren langileak kontratatzekeo espedientearen hasiera onartzeko eskumena dauka, beti ere, aldez aurretik, atxikirik dagoen Administrazioaren baimena lortu eta gero.

Langileen aukeratzea eta kontratazioa Batzorde Betearazlearen eskumena izango da.

4. Partzuergoko langileen jaurbidea izendapen bakoitzean zehaztuko diren baldintzei lotuta egongo da, eta bertan aurreikusita ez dagoenean, dagokien lan-arabideetan ezarritakoaren arabera, edo Toki-Administrazioaren funtzionarioen arabidean, kasuan-kasu.

5. Partzuergoaren langileen lege-arabidea atxikirik dagoen administrazio publikoaren langileena izango da, eta, ordainsariei dagokienez, inoiz ez dituzte gaudituko hango lanpostu baliokideentzat ezarritakoak.

VII KAPITULUA

UDALERRIAK BARNE-SARTZEA ETA BANATZEA**39. artikulua. — *Barne-sartzea***

Partzuergoan udalerrri gehiago barne-sartzeko honako hauek beharko dira:

a) Interesaturik dagoen Udaltzak alde aurretik bertako Osoko Bildurako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak erabakia hartu ondoren eskatzea.

b) Kontseilu Nagusiko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak onestea. Barne-sartzeko erabakian barne-sartzeko jarritako baldintza orokorrak bereziak adierazi beharko dira, eta, bere kasuan, kide berriak eman beharko duen ekarpena.

c) Udalerrria barne-sartzeko erabakia, Udaltzarra osotzen duten kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak hartuta. Erabaki horretan Partzuergoaren Estatutuak onetsi eta onartuko dira, baita eta honek barne-sartzeko jarri dituen baldintzak.

d) Partzuergoan udalerrri gehiagoren barne-sartzea Euskal-Herriko eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialetan argitaratuko dira.

40. artikulua. — *Borondatezko banatzea*

1. Partzuergoa osotzen duten edozein Udalerririk hura borondatez uzteko honako hauek beharko dira:

a) Interesaturik dagoen Udaltzarreko osoko bilkurako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoaz erabakitzea.

b) Interesaturik dagoen udalerrria Partzuergoari egin beharreko ekarpenak ordainduta izatea.

c) Banaketatik erator daitezkeen gastu guztiak ordaintzea, baita Partzuergoak sortutako zorkaririk dagokiona ere.

d) Batzar-Nagusiko botoa emateko eskubidea duten kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz kitapen-kontua onestea. Batzar-Nagusiak hartutako erabakian horretarako baldintzak jarriko dira.



2. Udallerri bat edo batzuk banatzeak ez du Partzuergoa kitapena egitera behartuko, izapide hori indarrrik gabe geratu daitekeelarik, beraren desegite egunerarte, harako egunerarte aipatu Udallerriek Partzuergoaren ondasunen kitapenean dagokien zati alikuotan parte hartuko dutela.

Hala ere, gertatzen diren inguruabarrak kontutan hartuz, banatutako udalerriei bere partaidetzaren ordainketa osorik edo zati batetan aurreratu ahal izango die. Beraien zerbitzuetarako bakarrik ezarritako elementu edo instalazioak esleituko zaie.

41. artikulua.— *Behartutako banaketa*

Partzuergoaren Kontseilu Nagusiaren iritzietan partzuerturiko erakunderen batek Legeetan edo Estatutuetan ezarritako betebeharrak larriki eta behin eta berriro bete ez dituenean, aipaturiko partzuerturiko erakundea Partzuergotik banatzea erabaki ahal izango dute, partaideen hirutik bik horren alde hartutako erabakiaz.

VIII. KAPITULUA ESTATUTUEN ALDAKETA

42. artikulua.— *Estatutuen aldaketa*

1. Partzuergoaren Estatutuak, Lehendakaria edo eta; Kontseilu Nagusiko botoa emateko eskubidea duten hirutik batek eginiko eskabideaz.

2. Aurreko idaztiaz jarritako ekimena hartu ondoren, eta Batzar-Nagusia ohi beste-ko bilkuran erabakia, egindako proposamenen arabera Estatutuen aldaketaren haserako onepenari ekingo zaio, eskatzea egoki irizitako txostenak emanda.

3. Ondoren, jendaurrean jarriko da 30 eguneko epe barruan. Epe hori igarota, proposamena Foru Aldundiaren aldeko erizpenaren menpe jarriko da, epe berdinean. Behin igarota erizpenik igorri gabe, aldekotzat joko da.

4. Azkenik, partzuerturiko izateen gehiengoak behin-behineko onepena eman beharko diete, Udaltzara osatzen duten legezko kideen gehiengo osoaren aldeko bozketaren quorumaz.

5. Estatutuen aldaketa, holan onetsita, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da oso-osorik, eta Bizkaiko Toki-Erakundearen Foru-Erroldan inskribatuko da, beste edozein lege-erregistroetan argitaratuko denaren kalterik gabe.

IX. KAPITULUA PARTZUERGOA DESEGITEA

43. artikulua.— *Zioak*

Partzuergoaren desegitea honako hauetan egingo da:

1. Edozein dela inguruabarra, etorkizunean aratzeko izandako helburuak bete ezin direnean.

2. Legezko xedapen bidez.

3. Kontseilu Nagusiak, eta partzuerturiko Erakundearen gehiengoak, bere eraketarako beharrezko den quorumaz.

4. Partzuergoaren eskumenekin bat datozen Herri-edo Erakunde Pribatu batekin baterabildu, bereganatu edo barne-sartzen denean. Horrelakoetan Kontseilu Nagusiaren kideen gehiengo soilaren aldeko erabakia eta partzuerturiko Erakundearen gehiengoak onestea beharko da.

44. artikulua.— *Jardunbidea*

1. Desegite erabakia hartu osteko egunetik kontaktuko den 30 egunetako epean, Kontseilu Nagusiak, likidatzaile bat izendatuko du, zeina organo edo entitate bat izango baita, partzuergoa adskribatu zaion administrazio publikoari lotua edo haren mendekoa.



Batzarretara deitu ahal izango dira arlo horretako teknikari edo adituak, iritzia eman edota txostenak egin edota erizpenak emateko bakarrik.

2. Likidatzailea, lau hilabeteko gehienezko epean Partzuergoaren ondasun, zerbitzu eta eskubideen zerrenda egin, beraren baliabide, zama, eta zorrak adierazi eta langileak zerrendatuko ditu.

3. Egindako zerrendaren arabera, Likidatzaileak Partzuergoaren kide bakoitzari dagokion kitapen-kuota asmatuko du, kitapenaren ostean geratzen den ondare garbian dagokion partaidetzaren arabera. Honetarako, Partzuergoaren kide guztiek honen ondare-funtserako egin dituzten ekarpenen kopurua eta urtez urte emandako finantzaketa kontuan hartuko dira. Partzuergoko kideren batek ez badu ekarpenik egin, horretara beharturik ez zegoelako, hau izango da banaketa-irizpidea: partzuergoko kide izan den denboran diru-sarrerarik jaso badu, haietan izandako partaidetza.

Proposamen hori Kontseilu Nagusiari ondasun, eskubide eta zorrak partzuerturiko Erakundearen artean banatu eta barne-sartzea proposatuko dio. Hortarako Batzordeak kitapenak egiteko egutegia jarriko du.

4. Kitatzeko erabakiak, kitatzeko kuotaren ordainketa egingo den era eta baldintzei dagokienez, emaitza positiboa izatekotan, edota partaide bakoitzak onartu behar duen zorrari dagokionez, Kontseilu Nagusiko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa beharko du.

Gehiengo berdinarekin aktibo eta pasibo guztiak sektore publikoko beste entitate juridikoki egoki bati lagatzea, jarduerari eusteko eta azkenduko den partzuergoaren xedeak betetzeko, erabaki ahal izango da. Aktibo eta pasibo guztiak lagatzeak berekin ekarriko du partzuergo lagatzailea azkentzea likidaziorik gabe.

Kitapen-proposamenak onetsia izan dadin, onetsi ondoren partzuerturiko Erakunde guztientzat betebeharrekoa izango da.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa: Partzuerturiko Udalen batek abonaturen batekin konpromezu ekonomiko ala zerbitzua dohainik ematekoa hartu balu, Udal horrek ordaindu beharko du.

Bigarrena: Partzuergo barruko Udalen batek entitate publiko nahiz pribaturen batekin sinatu dituen kontratu nahiz hitzarmenak subrogatuko ditu, beti ere partzuerturiko zerbitzuekin lotura dutenean.

Hirugarrena: Estatutu hauen onesprenak suposatuko du Partzuergoak beregain hartuko dituela ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuetako eskumenak, eta baita zerbitzu hauekin lotuta dauden udal-instalazioak.

Laugarrena: Estatutu hauek indarrean sartzeak ez du ekarriko Partzuergoko Gobernu-organuetan aldaketarik. Hauek euren karguetan ekingo dute, partzuerturiko erakundeetako ordezkariak berriztu arte.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa: Estatutu hauetan aurreikusita ez dagoen guztiarentzat, eta beronen arauak interpretatzeko Martxoaren 30eko 3/95 Foru-Arauak eta, eta Toki-Jaurlariek legeria eta Partzuergoaren arloarekin zerikusia duten autonomi, foru eta estatuko arauak jartzen dutenari lotuko zaio.

Bigarrena: Estatutu hauek 2004ko urriaren 1.etik aurrera egongo dira indarrean.